

Literatur Amuak ekimena egingo dute Ondarroan eguenean hasita

Ondarroa. Literaturari lotutako hainbat ekimen egingo dituzte datorren astean Ondarroan. Eguenean, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Txori Mugariak izeneko performancea gauzatuko dute Maialen Lujanbiok eta Xabier Erkiziak herriko Kofradia Zaharrean.

Ekimenek barikuan izango dute jarraipena, bi saiotan eskainiko den antzerki ikuskizunarekin. Horrela, 11:00etan eta 17:00etan Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarritutako Idazlea zeu zara antzezlanak ikusi ahal izango dute liburutegian 6 urtetik 12 urte bitarteko umeek. Egunari amaiera emateko, Anarik musika emanaldia eskainiko du Kafe Antzokian 22:00etatik aurrera. Zapatuko egitaraua 10:00etan zabalduko da, Harkaitz Cano eta Julen Gabiria Twist liburuaz jardungo direlako liburutegian. Arratsaldeko 19:00etan, Itsasoa Berbetan literatur gala egingo da Kafe Antzokian, musika, poesia eta dantza uztartuz Kresala taldea, Keu, Joxemari Urteaga, Leire Bilbao, Ana Urkiza eta Mikel Etxabururekin. Ekitaldian Augustin Zubikarai Beka Sariaren XII. edizioaren berri emango da.